

**AITZINA**

Editorea: Fermin Munariz. Koordintzaileak: Mariasun Monzon, Aholkularia: Itaki Egaña. Diseinatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behea. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

# NORANTZA

# ANA UNANUE

«Aizu!» Aldizkariaren koordintzailea

## «Azarotik aurrera AEKko ikasle guztiek jasoko dute Aizu! etxean»

Datorren kurtsoari berriketa handi batek emango dio hasiera AEKn, azarotik aurrera ikasle guztiek «Aizu!» aldizkaria jasoko baitute etxean. 15.000 pertsonak jasoko dute hilerio 44 orrialdez osaturiko argitalpena, euskaraz egiten den aldizkaririk hedatuena bihurtuz.

riak eta baita euskaraz egindako aldizkari espezializatuak ere. Euskaldun osoek badituzte beren komunikabideak eta "Aizu!"k bere jatorrizko helburuan heldu behar dio berriro, euskaraz ikasten ari den jendeari irakurketa erraztu behar dio. Beste euskal prentsa irakurtzeko mailarik ez dutenei tresna bat eman behar zaie.

nean jasotzea nahi genuen. Normalan ikasleek urrian egiten dute matrikula, baina datu guztiak jasoko eta batu behar dira. Lan hori azarorako egongo da bokatua eta horixe da guk jarri dugun epemuga. AEKko ikasle guztiek azaroran jasoko dute "Aizu!" berriaren lehenengo alea.

**Zein epe jarri duzue «Aizu!» berria argitaratzeko?**

Ikasle guztiek matrikulatzen dire-

**Zenbat lagun ari zarete lan horretan?**

Hiru erredakzio ditugu: Bilbo, Baiona eta Iruñekoak, eta publikitate egiteko bi bulego, bata Donostian eta bestea Bilbon. Hiru erredaktore arikuko dira lanean, gure kolaboratzaileen sarearekin batera. Denon artea 14 orrialde aterako ditugu hilerio.

**Esan daiteke aldaketa hauekin «Aizu!» fase berri batean sartzen dela?**

Hori da gure asmoa. Aizu! jaio zenean bere kabuz argitaratzen zen eta bi urte pasa ondoren, AEK hartu zuen bere gain. Bere lehen berriketa handia 1995ean izan zen eta orduan hamabost egunetan behin argitaratzen zen. Oraingo berriketarik handiena izango da, formatua aldatuko da baina baita edukia ere. Egun, euskal prentsan ez dago hutsunerik eta ahal dugu indarrak ikastearen prozesuan dagoen jendearengan jarri. Aldizkariaren izena eta jatorrizko helburua besterik ez mantentzea da gure asmoa.

### BEGOÑA SIMON

Laster hasiko den kurtsoarako «Aizu!» aldizkariak berriketa batzuk jasoko ditu. Zein berriketa dira hauek?

Aldizkaria erabat berritua argitaratzea da asmoa: itxuraz eta mamiaz. Koloretan argitaratuko da eta, gure ustez inportanteena, AEKko ikasle guztiek etxean jasoko dute "Aizu!". Horrek, 15.000 aleatik gora ateratzea eskatuko digu eta gurea euskaraz argitaratzen den aldizkari hedatuena bihurtuko du.

**Nola agertu da berriketa hauek egiteko beharra?**

Argitalpen guztiak iristen zaie halako momentu bat, eta gainera, "Aizu!" berritzeko asmoa aspalditik dator. Ateratzeko jogan da asmo hori azken boladan baina, azkenean, orain egitea erabaki dugu eta horrela izango da. Esan beharra dago, bestalde, euskal prentsaaren egoera asko aldatu dela "Aizu!" jaio zenetik, duela 18 urte, gaur arte. Orain "Argia" dago, "Egunkaria", herriko aldizka-



Cosy Bismuth

## AITZINDARIAK

**Jesus Monzon**  
1910-1973



**ALDERDI KOMUNISTA FUNDATU ZUEN NAFARROAN, ETA 36ko BOZETAN FRENTE POPULARREKO ZERRENDAN BERE BURUA AURKEZTU...**



**Intelectual de formación burguesa, aventurero, dandy, semiaristocrático, líbero de vicios...**

**«DENOK FRANCOREN ETA FALANGEREN AURKA» ESPAINIAKO DIKTADOREAREN KASATZEA DESINATU DU, BAI ETA ABIATU ERE: 2000 GERRILARI SAR ERAZIZ ARAN-EN GAINDI, ETA BERAK MADRILERA JO DIZU SASIAN, HELBURUA BETE BEHARREZ:**

- KARUSMOTIK ANARKISMORAINO, INDAR GUZIAN BAT EGITEA TIRANOAREN AITZI.
- GERRILARIK LIBRATU ESKUALDEAN BEHIN-BEHINEKO GOBERNUA ERATZEA.
- NAZIOARTEARI NEL EGITEA ALIATUEN SARTZEA ERDIESTEKO.

**Gangster político, provocador, Titista, agente de imperialismo, fraudador, activista, colaboracionista**

**GERLA GALDURIK, BERAK DU ALDERDIA BERRERAKI BERTZE ALDETIK, ETA NAZIEK FRANTZIA OKUPATU ONDOTIK, BERAK ANTOLATU MILITANTE MEHATXATUEN EBAKUAZIOA; OROBAT BERAK DU HITLER EN KONTRA MAKISA ERATU ETA ZUZENDU...**



**una de sus compañeras recuerda su admiración por los vascos, y sus relaciones con el Gobierno Vasco de París eran constantes...**

**SANTIAGO CARRILLOK, MOSKUTIK PARATXUTATU BERRI, PLANA HILORTU DU OKZITANIAKO TOLOSATIK. STALINISTEK NAHIZ FALANGISTEK HILTZERA KONDENATURIK, JESUS MONZONEN SANGRINATZEN ARI DA FRANCOREN PRESONDEGIETAN BARRENA.**



**... Pero cuando el camino está oscuro y no es fácil orientarse, hay una estrella que no falla: El camarada Stalin» SANTIAGO CARRILLO**

### ZIRTOKA



Txillardegí

### Bertako pariak

"Putzu" dela-ta, lehengoan elkarriketa bat egin zidaten. Eta galdera hau jaurl: «Non aurkitu dituzu garai hartako kanta interesgarri horiek?». Eta erantzuna ziplo eman nion: «Auspoa sailean».

Eta honek, hamaikagarren aldiz, Aita Zabala-ren lan nekagaitza gorresteko bide eman zidan.

"Putzu"ren kasaan bi liburu gertatu zaizkit oso baliagarri: 1961ean, Auspoaren hastapenetan, Aita Apatategi-ren "Euskal mutillak armetan" bilduma mirengarria baitetik. Eta Zabala-ren beraren "Karlisten bigarren gerrateko bertsok" izeneko liburu trinko mamitsua, bestetik. 1997an argitara emana berai.

Lan erraldoia A. Zabala-rena (jadanik 300 liburuki inguru).

Alde baitetik, eta hizkuntzaren aldetik, gure euskaldun herriak azkeneko mendebezetan honetan nolako euskara erabili izan duen zehazki ikasi ahal izateko. Hizkuntza berreskurapen garai liluragarri honetan, eta halabeharrez erdal giroan bizi den euskaldun-berri olatu eskerga betean mugildurik gaudelarik, «Auspoak» herri-eredu jatorriaren emale izan baitateke. (Izan behar lukeela erantsiko nuke...)

Baina euskararen beraren alorrean emandako laguntza bikain horrez gain, besterik ere eskami digu Antonio Zabalak. Dokumentu soziologiko aparta baitugu liburu horietan. A. Zabalak, lehenengo aldiz orohar, bertako «parrei» (bertako baserriar eta arantzale euskaldun elebarkarrei, alegia) ahoatsa eman die beren hizkuntzaz.

Honegatik bakarrik txalo eta gorazarre mereriz litzuke tolosar nekagaitzak. Eta esker emaleen multzo horren baruan, pozarren ipintzen duz nik ere neure burua.

Mila esker anitz behin eta berriaz, beraz, arrastorik ere utzi gabe ahaztuta desagertzeko arriskutan egon diren euskal herritar apal horien guztien izenean.